# BESTELAKO XEDAPENAK

## HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

## 1824

*189/2013 DEKRETUA, apirilaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko sailetako eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onartzen dituen Dekretua aldatzeko dena (behin-behineko langileak).*

Urriaren 14ko 226/1997 Dekretuaren bidez, karrerako funtzionarioentzat eta lan-kontratudun langileentzat gordetako lanpostuen zerrendak onartu ziren. Dekretu hori hainbat aldiz aldatu da.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 14. artikuluan ezartzen duenez, lanpostuen zerrendek aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostu guztiak barne hartu beharko dituzte, eta funtzionarioentzat, lan-kontratuko langile finkoentzat eta behin-behineko langileentzat gordetakoak diren bereizi. Xedapen hori betetzeko, martxoaren 20ko 44/2007 Dekretua argitaratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko sailetako eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onartu zituen dekretua aldatzeari buruzkoa. Dekretu horrek, hain zuzen ere, behin-behineko langileentzat gordetako lanpostuen zerrendak onartu zituen, eta apirilaren 19ko 92/2005 Dekretua ordezkatu zuen, azken hori, 2006ko urtarrilaren 12an Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak emandako epaiaren bitartez, deuseztatu egin baitzen. Geroztik, hainbat aldiz aldatu da dekretu hori, eta uztailaren 21eko 464/2009 Dekretuaren bidez egin zitzaion aldaketa izan da garrantzitsuena.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren egitura osatzen duten sailak eta horien jardun-arloak finkatzen dira. Dekretu horrek berekin dakar ezinbestez sailetako behin-behineko langileen lanpostu-zerrendetan aldaketak egitea.

Lanpostuen zerrendak Administrazioaren barne-egiturak antolatzeko tresna gisa sortzen dira; horregatik, indarrean dauden prozeduren arabera izapidetu eta aldeko ebazpena eman zaien aldaketak egin behar dira aldian-aldian, uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 18. artikuluari dagokionez 2002ko uztailaren 30ean Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako Erabakia betetzeko. Aipatutako erabaki horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zerbitzura dauden behin--behineko langileen araubide juridiko orokorra eta egiturazkoa ezartzeko proposamena onartu zen.

Behin-behineko langileentzat gordetako lanpostuen zerrenda honek, funtsezko ezaugarriak, betetzeko eskatzen diren baldintzak eta lanpostuen ordainketa- erregimenarekiko beharrezkoak diren zehaztasunak finkatzen ditu, guztiak ere Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren Erakunde Autonomoetako lanpostuen zerrendak arautzen dituen apirilaren 12ko 78/2005 Dekretuaren 5.4 artikuluan ezarritakoaren arabera (urtarrilaren 16ko 6/2007 Dekretuaren araberako idazkera). Dekretu horrek, alde batetik, 2005eko azaroaren 18ko Epaiaren epaitzan ezarritakoari erantzuten dio, eta, bestetik, uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 15. artikuluan eta Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2002ko uztailaren 30eko Erabakian jasotako xedapenak batzen ditu.

Ondorioz, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko apirilaren 9an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Behin-behineko langileentzat gordetako lanpostuen zerrendetan egindako aldaketak onartzea. Zerrenda horiek dekretu honen eranskinean agertzen dira eta martxoaren 20ko 44/2007 Dekretuaren eta haren ondorengo moldaketen bidez onartutako zerrendak ordezkatzen dituzte.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko apirilaren 9an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.

## ERANSKINA, APIRILAREN 9ko 189/2013 DEKRETUARENA

| ALDI BATERAKO LANGILEENTZAT ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Kod. | Dot. | Lanpostuaren Izena | Saila | Pl | Ordainsaria | TP | Sailkp. | Dedik Erregi. |
| 5003 | 1 | Lehendakariaren bigarren idazkari | Lehendakaritza | 2 | 22 | N | EP | %100 |
| 5003 | 2 | Lehendakariaren bigarren idazkari | Lehendakaritza | 2 | 22 | N | EP | %100 |
| 5011 | 1 | Lehendakariaren idazkaritzako buru | Lehendakaritza | 3 | 29 | B | EP | %100 |
| 5012 | 1 | Komunikazio-teknologia berrien aholkulari | Lehendakaritza | 3 | 26 | B | SP | %100 |
| 5066 | 1 | Protokoloko aholkulari | Lehendakaritza | 3 | 25 | N | SP | %100 |
| 5066 | 2 | Protokoloko aholkulari | Lehendakaritza | 3 | 25 | N | SP | %100 |
| 5105 | 1 | Ajuria Eneako arduradun | Lehendakaritza | 3 | 26 | B | EP | %100 |
| 5129 | 1 | Etxeko lanetarako kanpoko laguntzaile | Lehendakaritza | 1 | 16 | B | EP | %100 |
| 5210 | 2 | Lehendakariaren aholkulari | Lehendakaritza | 3 | Sailburuorde | B | SP | %100 |
| 5233 | 1 | Lehendakari ohiaren laguntza-idazkariaren arduradun | Lehendakaritza | 2 | 20 | N | EP | 2 |
| 5233 | 2 | Lehendakari ohiaren laguntza-idazkariaren arduradun | Lehendakaritza | 2 | 20 | N | EP | 2 |
| 5233 | 3 | Lehendakari ohiaren laguntza-idazkariaren arduradun | Lehendakaritza | 2 | 20 | N | EP | 2 |
| 5233 | 4 | Lehendakari ohiaren laguntza-idazkariaren arduradun | Lehendakaritza | 2 | 20 | N | EP | 2 |
| 5234 | 1 | Lehendakari ohiaren gidari-laguntzaile | Lehendakaritza | 1 | 20 | N | EP | 1 |
| 5234 | 2 | Lehendakari ohiaren gidari-laguntzaile | Lehendakaritza | 1 | 20 | N | EP | 1 |
| 5234 | 3 | Lehendakari ohiaren gidari-laguntzaile | Lehendakaritza | 1 | 20 | N | EP | 1 |
| 5234 | 4 | Lehendakari ohiaren gidari-laguntzaile | Lehendakaritza | 1 | 20 | N | EP | 1 |
| 5236 | 1 | Lehendakaritzako Idazkaritza Orokorraren aholkulari | Lehendakaritza | 3 | Zuzendari | B | SP | %100 |
| 5252 | 1 | Lehendakaritzarako idazkaritza-laguntzaile | Lehendakaritza | 2 | 21 | B | EP | %100 |
| 5258 | 1 | Biktimen arretarako koordinatzailearen aholkulari | Lehendakaritza | 3 | Zuzendari | B | PP | %100 |
| 5268 | 1 | Komunikazioko aholkulari | Lehendakaritza | 3 | 26 | B | SP | %100 |
| 5269 | 1 | Kanpo-ekintzako idazkari orokorraren aholkulari | Lehendakaritza | 3 | Zuzendari | B | SP | %100 |
| 5270 | 1 | Koordinazioko aholkulari | Lehendakaritza | 3 | 29 | B | SP | %100 |

| Kod. | Dot. | Lanpostuaren Izena | Saila | PL | Ordainsaria | TP | Sailkp. | DedikErregi. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5221 | 7 | Sailburuaren idazkari | Herri Administrazioa eta Justizia | 2 | 20 | N | EP | 2 |
| 5255 | 1 | Komunikazio eta komunikabideekiko harremanen aholkulari | Herri Administrazioa eta Justizia | 3 | 26 | B | SP | %100 |
| 5253 | 1 | Justizia-arloko informatika kontuetako aholkulari | Herri Administrazioa eta Justizia | 3 | Zuzendari | B | SP | %100 |
| 5254 | 1 | Sailaren komunikaziorako eta Jaurlaritzaren bozeramailetzarentzako aholkulari | Herri Administrazioa eta Justizia | 3 | Zuzendari | B | SP | %100 |
| 5256 | 1 | Legebiltzarreko kontuetako aholkulari | Herri Administrazioa eta Justizia | 3 | Sailburuorde | B | SP | %100 |
| 5257 | 1 | Administrazioa modernizatzeko kontuetako aholkulari | Herri Administrazioa eta Justizia | 3 | Zuzendari | B | SP | %100 |
| | | | | | | | | |
| Kod. | Dot. | Lanpostuaren Izena | Saila | PL | Ordainsaria | TP | Sailkp. | DedikErregi. |
| 5221 | 8 | Sailburuaren idazkari | Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna | 2 | 20 | N | EP | 2 |
| 5280 | 1 | Koordinaziorako eta plangintza estrategikorako aholkulari | Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna | 3 | Sailburuorde | B | SP | %100 |
| 5259 | 1 | Europako kontu eta programetako aholkulari | Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna | 3 | Zuzendari | B | SP | %100 |
| 5260 | 1 | eknologi aberrien eta informazioaren gizartearen kontuetako aholkulari | Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna | 3 | Zuzendari | B | SP | %100 |
| 5261 | 1 | Berrikuntza eta nazioarteko kontuetako aholkulari | Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna | 3 | Zuzendari | B | SP | %100 |
| 5262 | 1 | Nekazaritzako eta arrantzako kontuetako aholkulari | Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna | 3 | Zuzendari | B | SP | %100 |
| | | | | | | | | |
| Kod. | Dot. | Lanpostuaren Izena | Saila | PL | Ordainsaria | TP | Sailkp. | DedikErregi. |
| 5166 | 1 | Azterlan eta programetako aholkulari | Enplegua eta Gizarte Politikak | 3 | Zuzendari | B | SP | %100 |
| 5191 | 1 | Gizarte-politiketako aholkulari | Enplegua eta Gizarte Politikak | 3 | Zuzendari | B | SP | %100 |
| 5221 | 10 | Sailburuaren idazkari | Enplegua eta Gizarte Politikak | 2 | 20 | N | EP | 2 |
| 5223 | 7 | Komunikazioetako aholkulari | Enplegua eta Gizarte Politikak | 3 | Zuzendari | N | EP | %100 |
| 5263 | 1 | Kabineteko aholkulari | Enplegua eta Gizarte Politikak | 3 | Zuzendari | B | SP | %100 |
| 5264 | 1 | Saileko politikaren aholkulari | Enplegua eta Gizarte Politikak | 3 | Sailburuorde | B | SP | %100 |
| | | | | | | | | |
| Kod. | Dot. | Lanpostuaren Izena | Saila | PL | Ordainsaria | TP | Sailkp. | DedikErregi. |
| 5286 | 1 | Koordinazio kontuetako aholkulari | Ogasuna eta Finantzak | 3 | Zuzendari | B | SP | %100 |
| 5221 | 6 | Sailburuaren idazkari | Ogasuna eta Finantzak | 2 | 20 | N | EP | 2 |
| 5287 | 1 | Programa eta azterlanetako aholkulari | Ogasuna eta Finantzak | 3 | Zuzendari | B | SP | %100 |
| 5278 | 1 | Ogasun eta finantza araudiari buruzko aholkulari | Ogasuna eta Finantzak | 3 | Sailburuorde | B | SP | %100 |
| 5266 | 1 | Legebiltzarreko ekimenen arloko aholkulari | Ogasuna eta Finantzak | 3 | Zuzendari | B | SP | %100 |
| 5271 | 1 | Sektore Publikoaren azterlan eta azterketako aholkulari | Ogasuna eta Finantzak | 3 | Sailburuorde | B | SP | %100 |

| Kod. | Dot. | Lanpostuaren Izena | Saila | PL | Ordainsaria | TP | Sailkp. | DedikErregi. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5221 | 4 | Sailburuaren idazkari | Segurtasuna | 2 | 20 | N | EP | 2 |
| 5122 | 2 | Komunikabideetako aholkulari | Segurtasuna | 3 | 28 | N | EP | %100 |
| 5281 | 1 | Segurtasun arloan politika publikoak ebaluatzeko aholkulari | Segurtasuna | 3 | Zuzendari | B | SP | %100 |
| 5282 | 1 | Segurtasun publikoan aplika daitezkeen teknologia berriei buruzko aholkulari | Segurtasuna | 3 | Zuzendari | B | SP | %100 |
| 5283 | 1 | Kalitatea kudeatzeko prozesuak ezartzeko aholkulari | Segurtasuna | 3 | Zuzendari | B | SP | %100 |
| 5284 | 1 | “2016 Ortzimuga” Ertzaintzaren plan estrategikoa garatzeko aholkulari | Segurtasuna | 3 | Sailburuorde | B | SP | %100 |

| Kod. | Dot. | Lanpostuaren Izena | Saila | PL | Ordainsaria | TP | Sailkp. | DedikErregi. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5221 | 1 | Sailburuaren idazkari | Osasuna | 2 | 20 | N | EP | 2 |
| 5223 | 8 | Komunikazioetako aholkulari | Osasuna | 3 | Zuzendari | N | EP | %100 |
| 5230 | 4 | Erakundeekiko harremanen aholkulari | Osasuna | 3 | Zuzendari | B | SP | %100 |
| 5273 | 1 | Osasun-programetako eta herritarrekiko harremanetarako aholkulari | Osasuna | 3 | Sailburuorde | B | SP | %100 |
| 5274 | 1 | Kudeaketa estrategikoaren aholkulari | Osasuna | 3 | Zuzendari | B | SP | %100 |
| 5285 | 1 | Osasun-Plangintza eta Berrikuntzarako aholkulari | Osasuna | 3 | Zuzendari | B | SP | %100 |

| Kod. | Dot. | Lanpostuaren Izena | Saila | PL | Ordainsaria | TP | Sailkp. | DedikErregi. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5221 | 5 | Sailburuaren idazkari | Ingurumena eta Lurralde Politika | 2 | 20 | N | EP | 2 |
| 5223 | 5 | Komunikazioetako aholkulari | Ingurumena eta Lurralde Politika | 3 | Zuzendari | N | EP | %100 |
| 5275 | 1 | Ingurumeneko aholkulari | Ingurumena eta Lurralde Politika | 3 | Zuzendari | B | SP | %100 |
| 5276 | 1 | Garraioetako aholkulari | Ingurumena eta Lurralde Politika | 3 | Zuzendari | B | SP | %100 |
| 5277 | 1 | Lurralde Politikako aholkulari | Ingurumena eta Lurralde Politika | 3 | Zuzendari | B | SP | %100 |
| 5279 | 1 | Koordinazioko aholkulari | Ingurumena eta Lurralde Politika | 3 | Sailburuorde | B | SP | %100 |

| Kod. | Dot. | Lanpostuaren Izena | Saila | PL | Ordainsaria | TP | Sailkp. | DedikErregi. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5039 | 1 | Eskola-kontseiluko lehendakari | Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura | 3 | Zuzendari | B | EP | %100 |
| 5141 | 1 | Hizkuntza-politikako aholkulari | Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura | 3 | Zuzendari | B | SP | %100 |
| 5221 | 3 | Sailburuaren idazkari | Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura | 2 | 20 | N | EP | 2 |
| 5223 | 3 | Komunikazioetako aholkulari | Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura | 3 | Zuzendari | N | EP | %100 |
| 5265 | 1 | Kanpo-harremanetako aholkulari | Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura | 3 | Zuzendari | B | SP | %100 |
| 5267 | 1 | Hezkuntza kontuetako aholkulari | Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura | 3 | Zuzendari | B | SP | %100 |
| 5272 | 1 | Komunikazioetako aholkulari | Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura | 3 | 29 | B | SP | %100 |

| Kod. | Dot. | Lanpostuaren Izena | Saila | PL | Ordainsaria | TP | Sailkp. | DedikErregi. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5208 | 1 | Aholkulari | Emakunde | 3 | 28 | B | SP | %100 |

| GAKOAK | SAILKAPENA | DEDIKAZIO ERREGIMENA |
|---|---|---|
| Lanpostu mota | | |
| B: Berezia | EP: Egiturako postua | 1: Dedikazio berezia % 10 |
| N: Normalizatua | SP: Sektoreko postua | 2: Dedikazio berezia % 20 |
| | PP: Iraupen jakineko programetako postua | % 100 Lanaldi osoa |